

HIZKUNTZA GUTXITUAK MUNDUAN: EGOERAK ETA PERSPEKTIBAK HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN IKUSPEGITIK

SARRERA. HIZKUNTZA-EKOLOGIAZ

Hizkuntza-ekologia mundu-mailako hizkuntza-aniztasunaren egoerari eta hizkuntza gutxitu zehatz guztiei erantzunak eman nahi dizkion nazioarteko pentsamendua eta praktika da. Aldi berean, zientzia bat ere baden aldetik, teknikoki ahalik eta modu zorrotzenez aztertu nahi ditu hizkuntzek euren ingurunearekin dituzten harremanak eta hizkuntzek euren artean dituztenak. Baina, ekologiak egiten duen antzera, hizkuntza-ekologiarentzat ez du nahikoa errealitatea (hizkuntzak eta bere ingurunea) deskribatzea, gertakarien arrazoiak azaltzea edota etorkizuneko proiektioak egitea; ekologiak bezala, hizkuntza-ekologiak ere, errealitatearen gaineko ardurak eta erantzukizuna aldarrikatzen du, Einar Haugenek berak lehen aldiz terminoa proposatu zuenetik 1973. urtean (Haugen, 1972). Hau da, dagoeneko oso ezaguna den hizkuntza-galera masiboaren krisiari erantzuna eman nahi dio hizkuntza-ekologiak balio etikoen aplikazioaren bitartez. Eta erantzun horretan berebiziko garrantzia du hizkuntza bakoitzak bere lurraldean garatzeko aukera izateak, baita beste hizkuntzekin harremanetan dagoen kasuetan ere. Euskararen biziberritze-prozesuaren testuinguruan garrantzizkoa da hori kontuan izatea, euskararen etorkizuna euskaldunen eskuetan egon badagoen arren, hein handi batean, nazioarteko mugimendu zabalari lotua ere badagoelako.

Horrela hizkuntzek bizidunen espezie bezala euren ingurune eko-sistemikoa behar-beharrezko dutela, alegia bizitzeko ezinbesteko ingurunea. Eta zentzu horretan, hizkuntza-ekologiak alde batetik hizkuntzak euren habitatarekin (hizkuntza-komunitateekin) dituzten harremanak aztertzen ditu, eta, bestetik, hizkuntza-aniztasunaren banaketa eta aniztasunaren galtzeko arriskuaren aurreko erantzunak eskaintzen ditu.

Horrela bada, gaiarekiko sarrera modura, ondorengo ataletan aztertuko dira aipaturiko hiru ideia nagusiak: 1) munduko hizkuntza-aniztasunaren nolakotasunak, 2) hizkuntza-aniztasun horrek duen galtzeko arrisku bizia eta 3) Hizkuntza-ekologiak ikuspegitik proposatzen diren erantzunak.


1. HIZKUNTZA-ANIZTASUNA MUNDUAN

Ethnologue katalogoak dionenez, 7097 dira 2018an hitz egiten diren hizkuntzak (SIL International, s. f., p. 2018). Saillkapen hori egiteko egileek hainbat irizpide erabiltzen dituzte, zeinak ez duten beti aditu guztien adostasuna lortzen. Alegia, hizkuntza-kopuru zehatza ezagutzeak esan nahiko luke, esate baterako, guztiek onartzen dugula hizkuntza eta aldaeren arteko banaketa berbera; eta ez da horrela ohi izaten, izan ere, horien bereizmenean arrazoi linguistikoaz gain, arrazoi politikoak ere agertzen dira. Esate baterako, ohikoa da aldaeren arteko ulergarritasuna aldarrikatzea hizkuntza desberdinak bereizteko orduan. Hala ere, irizpide horren ahulezia ikusteko nahikoa da gogoratzea zenbaitetan hizkuntza bakarraren bi aldaera modura hartzen direla elkar

ulertzeko zailtasunak dituzten horietako bi, eta, aldiz, bi lurraldeen arteko muga politikoak elkar oso ondo ulertzen duten aldaeretakoa hiztunek momentu zehatz batean bi hizkuntza modura kontsideratzen hasteko. Nolanahi ere, hizkuntzen kopuru zehatza ez da hain garrantzizkoa, baizik eta horien guztien etorkizuneko aukerak ziurtatzea.

Hala ere, hizkuntzen iraunkortasun horri buruz hitz egiten hasi aurretik, eman diezaiozun begirada bat aipatzen ari garen munduko hizkuntza-aniztasunaren handitasunari, eta handitasun horren munduan zeharreko banaketari.

1 Irudia. Hizkuntzen aniztasuna eta banaketa geografikoa



Iturria: *Ethnologue. Languages of the World*. (SIL International, s. f.)

Aipaturiko 7.000 hizkuntza horietatik, Ethnologueen arabera, bi heren Afrikan eta Asian hitz egiten dira (1.900 hizkuntza kontinente bakoitzean), eta ia beste herena Ozeano Barearen eta Amerikaren artean; azkenik, hizkuntzen %3a hitz egiten da Europan. Beraz, 1 Irudiak erakusten duen bezala, hizkuntza-aniztasun handiaren banaketa geografikoa munduan ez da uniformea inondik ere. Zentzu horretan, ez da alferrikakoa agerian jartzea gure mendebaldeko inguruan, bereziki hizkuntza gutxiago hitz egiten direla munduko beste kontinenteetan baino.

Interesgarria da puntu honetan begiratzea zein diren gaur egun hizkuntza-aniztasun handiena duten munduko lurraldeak. Aipatzen ari garen iturriari begiratzuz berriro, esango dugu honakoa dela hizkuntza-kopuru handieneko lurraldeen hurrenkera:


1 Taula. Hizkuntza-aniztasun handieneko munduko lurraldeak

•839	Papua Ginea Berria
•707	Indonesia
•526	Nigeria
•454	India
•422	Estatu Batuak
•300	Txina
•289	Mexiko
•281	Kamerun
•245	Australia
•229	Brasil
•212	Kongo Errep.
•193	Filipinak
•174	Kanada
•146	Malaisia
•140	Errusia
•131	Txad
•126	Tanzania
•125	Nepal
•116	Vanuatu

Iturria: *Ethnologue. Languages of the World*. (SIL International, s. f.)

Baina banaketa geografikoaz gain, hizkuntzak bereizten dituzten ezaugarri artean bada beste garrantziko bat, hain zuzen, hizkuntzek dituzten hiztun-kopuruari dagokiona. Lehen grafikoan ikus daitekeenez, bederatziz hizkuntza daude ehun milioi hiztun baino gehiago dituztenak, eta ia 5.000 hizkuntza dira 100.000 hiztun baino gutxiago dituztenak, eta horien artean 10.000 hiztun baino gutxiago dituztenak 3.391.

1 Grafikoa. Hizkuntzen banaketa hiztun-kopuruaren arabera




Iturria: *Ethnologue. Languages of the World*. (SIL International, s. f.)

Beraz, agerian geratzen da hizkuntzen artean dagoen hiztun-kopuruaren arteko banaketa. Akaso, puntu honetan merezi du aipatzea, sarritan, hizkuntzen hiztun-kopurua jarri izan dela hizkuntzek etorkizuneko aukera izateko baldintza nagusi modura. Esan beharko genuke, arrazoi hori (hiztun-kopuru txikia ez-nahikoa izatea) ez dela zertan berez hizkuntza galtzerainoko traumatikoa izan beharrik; horren lekuko da hain zuzen, gaur egun arte milaka hizkuntza heldu izana. Horrekin adierazi nahi dena da ziurtatu behar dela hizkuntzek euren ekosistema

nahikoa izatea euren funtzioak bete ditzaten gaurko hiztunentzat baliagarria eta baita etorkizunekoentzat ere. Azkenik, aipatu beharko genuke, jakina, hiztun-kopurua egonkorra ez denez berez, gerta daitekeela kopuru hori behetik gora etortzea komunitate horren populazioa hazten delako edo geografikoki hedatzen delako hiztunak irabaziz, edo, alderantziz, goitik behera galtzen ari dela hiztun-kopurua berezko funtzioak galduz doazelako, eta ondorioz, beste hizkuntza baterako jauzia edo aldaketa egiten ari direlako komunitateko kideek. Beraz, fenomeno horiek kontuan izan da, gerta daiteke hiztun-kopuru txikiko komunitate sendoak aurkitzea eta, alderantziz, hiztun-kopuru oso handiko hizkuntzak egoera oso larrian egotea.

2 Grafikoa. Hizkuntzen banaketa hitz egiten dituzten populazioaren proportzioaren arabera



Iturria: *Ethnologue. Languages of the World*. (SIL International, s. f.)

Hiztun-kopuruaren araberako hizkuntza-banaketaz ari garenez, komenigarria da gogora ekartzea 2. Grafikoan ikus daitekeen bezala, ehun milioi hiztun baino gehiago dituzten hizkuntzek munduko biztanleriaren artean hartzen duten lukua edo pisua oso handia dela: txinerako, gaztelaniako, ingeleseko, hindiko, arabierako, portugeseko, bengalerako, errusierako eta japonierako hiztunen artean munduko populazioaren erdia osatzen dute; eta, bestaldean, populazioaren erdiak gainerako zazpi milatik gorako hizkuntzak hitz egiten ditugu. Beraz, argi samar geratzen da hizkuntza horien eta gainerakoen artean begi bistara azaltzen den desoreka. Hizkuntza-ekologiaren testuinguruan azalduko dugun bezala, desoreka horiek ez dira berez sortutakoak, eta euren izatea ez da berezko handitasunaren ondorio, baizik eta gizakiak eta komunitate linguistikoek buruturiko hedatze-prozesuei esker sorturikoak.

Bestalde, interesgarria da ikustea zer-nolako harremanak bilatzen ari diren adituek hizkuntza-aniztasunaren eta bioaniztasunaren artean. Adibidez, hizkuntza-aniztasunaren genesisia aztertzerakoan honako arrazoiak eman izan dira tradizionalki, Mühlhäusler-en hitzetan jarrita:

[Hizkuntza] desberdintasun horien eragilea denbora dela uste izan da tradizionalki. Hizkuntza dibertsifikazioa gertatzeko, denbora luzea behar omen da: egindako kalkuluen arabera, 1.000 urte behar dira hizkuntza bat bi bihurtzeko. [...]


Denboraz gain, beste hizkuntza batzuekiko ukipena ere erabiltzen zen desberdintasun horiek azaltzeko arrazoi gisa: ukipen hizkuntzatik abiatuta, nahiko denbora epe laburrean hizkuntza berriak gara daitezke [...]

*Hala ere, denborak eta ukipenak bakarrik ezin dituzte hizkuntza-aniztasunaren alderdi guztiak azaldu. ... Beste arrazoi bat egon daiteke: gizakiaren hautaketa Laycock-ek dioen modura **“hiztunek beren gizarte eta ingurune egoerarekiko izandako erantzuna ere bada, hein handi batean, eta erantzun hori, gainera, kontzientea zen neurri batean”**(Muhlhäusler, 2005, pp. 69-70)*

Idea hori bat dator azken urteetan indartzen ari den hipotesiarekin, alegia, *aniztasun biologikoaren* eta hizkuntza-aniztasunaren kasuan, isolamendu genetikoak, bizitzarako espezializazioak, eta propietate *autopoietikoa* izenekoen (autoorganizatzailea) ondorioz sortu direla (Bastardas, 2003, p. 126). Gainera, geografikoki hizkuntza-aniztasuna eta bioaniztasuna lotzen dituen hainbat teoria ere garatu dira. Horren inguruan, esate baterako, Luisa Maffi (Maffi, 2001) ikerlari italiarra lan izugarri handia eta interesgarria egiten ari da *aniztasun biokulturalaren* esparruan. Ikus ondorengo mapan munduko bioaniztasuna eta hizkuntza-aniztasunaren arteko erkaketa. Agerian geratzen denez, hizkuntza-aniztasuna eta landare-aniztasuna geografikoki oso modu esanguratsuan garatu dira eremu geografiko antzekoetan. Eta horrek badirudi sendotzen duela hipotesia esaten duena hizkuntzak garatu eta dibertsifikatzen direla ingurumenari egokitzeko beharren arabera.

2. Irudia. Bioaniztasuna eta kultura-aniztasunaren arteko banaketa geografikoaren alderaketa

LANDARE ANIZTASUNA ETA HIZKUNTZEN BANAKETA



Iturria: Luisa Maffi 2001

Bestalde, hizkuntza-aniztasunaren deskribapena egiterakoan, azpimarratzeko ideia da gaur egun hitz egiten diren hizkuntza guztiak gizateriaren historia soziolinguistikoaren emaitza direla. Hau da, prozesu dinamikokoak dira, neurri batean modu naturalean gertatutako prozesuak, baina aldi berean, gizakiaren esku-hartze zuzena izan dutela, eta ekologiaren kasuan bezala, hainbat eta hainbat kasutan modu okerrean zuzendurikoak. Hau da, garrantzizkoa da ikustea hizkuntza gutxi batzuen hedatzeak, sarritan, beste asko eta askoren desagertzea eragin dutela, eta ez dela prozesu natural baten emaitza, baizik oso egituratua eta antolatutako prozesu zehatz baten ondorio. Prozesu horietan, beraz, arrazoi ekonomikoak, politikoak eta sozialak parte hartzen dute menderatze-prozesu orokorren mesedetan.

2. HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN GALTZEKO ARRISKU BIZIA

Aipaturiko arrazoiak tarteko, hizkuntza-aniztasunaren deskripzioaren lehen ondorioa honakoa da: **Munduko hizkuntza-aniztasuna galtzeko joera oso larria**. Eta, gertakari horrek sortu duen kontzientziazio soziala oraindik oso urrun dago ingurumenaren zaintzak edo pentsamendu ekologikoak gizartean hartu duenetik. Gainera, arazoa ez da hizkuntza bakoitzarena soilik -edo hizkuntza-komunitate bakoitzarena-, baizik eta mundu mailako gertakaria da, eta, beraz, gizateria osoari dagokiona; hizkuntza-aniztasuna galtzeko arriskuaren fenomeno, jatorria eta arrazoiak ez dira berez, naturalki, sorturikoak, baizik eta –arazo ekologikoen kasuan bezala- gizakiak eragindakoa, modu kolektiboan eta masiboan.


Hizkuntza galtzearen inguruko lehenetariko lan garrantzizkoa Krauss-ek argitaratu zuen 1992ko bere artikuluan (Krauss, 1992). Artikulu horren bitartez alarma gorri guztiak piztu zituen belaunez belaun transmititzen ez diren munduko hizkuntzen kopurua oso altua zela demostratu zuelako. Bere artikuluan honakoa izan zen agerian jarri zituen transmisioa etenda zuten hizkuntzen ehunekoen hurrenkera: Alaskan %90, Estatu Batuetan eta Kanadan %80, Mexiko eta Erdialdeko Amerikan %17, Hegoamerikan %27, Sobiet Batasun ohian %50, Australian % 90. Datu horiek ikusita ondorioztatu zuen munduko hizkuntza-aniztasunaren %30 inguruan dagoela galduta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa. Eta hori gertatzeko arrazoi nagusia gurasoek euren seme-alabei euren hizkuntza erakustea eurentzat kaltegarria izango zenaren iritzia orokortzen ari zelako baieztatu zuelako.

Modu berean, UNESCOren *Munduko arriskupeko hizkuntzen munduko mapak* informazio oso zehatza ematen du gai horren inguruan. Nola definitzen du Unescok hizkuntza bat galtzeko arriskua? Hizkuntza baten arriskua neurtzeko ondoko tipologia proposatu du:

- **Galtzeko arrisku potentzialean:** Ikasten duten haurren kopurua jaisten ari denean
- **Galtzeko arriskuan:** Transmisioa neurri handian eten denean
- **Galtzeko arrisku larrian:** Hitzun gazteenak pertsona helduak direnean
- **Hilzorian:** Hitzun gutxi eta adin handikoak
- **Hizkuntza hilak :** Hitzun gabeak

Irudian ikus daitekeen bezala, oso larria da egoera, izan ere, gutxienez badira 2.500 hizkuntzak neurri bateko edo besteko arriskua dutenak mundu mailako azterketa honetan.

3. Irudia. UNESCOk argitaraturiko *Arriskupeko Munduko hizkuntzen mapa*



Iturria: (UNESCO, 2010)

- 1) estatuetako hizkuntza ofizialek euren esparru geografikoen baitan bertako hizkuntzen ordezkatzeko masiboa,
- 2) ingelesaren mundu mailako *lingua franca*-ren hedatze ia masiboa eta –momentuz- eztabaidaezina, eta
- 3) ezagutzen den inoizko hizkuntza-aniztasun handiena duen migrazio-mugimendu zabalena.

Horren inguruan, “bizitasuna etnolinguistikoaren” kontzeptuak zeresan handia izan du, Kraussek bera, belaunaldiz belaunaldiko hizkuntza transmititzearen garrantzia azpimarratzen du. Ondoren egin diren hainbat lanek garai hartako aurreikuspenak baieztatzen dituzte (Martí et al., 2005), (Skutnabb-Kangas, 2000), (UNESCO, 2010).

3. HIZKUNTZA-ekologiari proposaturiko erantzunak

IRAUNKORTASUNAREN KONTZEPTUA

Hizkuntza-ekologiaren funtsa *iraunkortasunaren* kontzeptuan kokatzen da. Iraunkortasuna bere zentzu zabal eta sakonenean. Gogoratzeko merezi du hemen, ekologiari *iraunkortasuna kontzeptua* bi adieratan erabiltzen duela: lehena, aniztasun biologikoaren zaintzaren mesedetan, eta, bigarrena, gaur egun nagusitu den garapeneredu mugagabea iraultzeko borondatean oinarrituta dagoena. Bi adiera horiek dira hizkuntza-ekologiari interesatzen zaizkionak. Alde batetik, aniztasunaren ikuspegitik hizkuntza guztien defentsa egingo du; izan


hiztun-kopuru handikoak, zein hiztun gutxi dituztenak, idatzizko tradizioa dutenak, zein ahozko tradizioz gaurdaino heldu direnak, eremu geografiko txikian hitz egiten direnak, eta esparru zabalagoan daudenak.

Baina ekologiaren iraunkortasunaren kontzeptuaren bigarren adiera ere interesatzen zaio hizkuntza-ekologiari, hau da, garapen-eredua irauli beharra azpimarratzen duen horri. *Garapen iraunkorra* 1987an idatzitako *Brundtland Txostenak*, definitu zuen, eta 1992an Rio-ko Munduko Gailurrean kontzeptua mundu zabalera hedatu zen. Honela definitu zen kontzeptua:

- ***Garapen iraunkorra gaur egungo beharrei erantzuteko garapen modua da, datozen belaunaldien beharrak asetzeko euren gaitasuna arriskuan jarri gabe.***
- ***Garapen iraunkorrek gizakiaren bizitza baldintzatzen dituen hiru esparru elkar lotzen ditu: ekonomiaren garapena, gizarte gaietan ekitatea eta ingurumenaren zaintza.***

Hiru zutabe horiek dira, ezinbestean eta elkar loturik, garatu beharrekoak modu ekosistemiko batean komunitatearen iraunkortasuna bermatu nahi bada. Eta dimentsio horretan kokatzen dugu hizkuntzaren eta kulturaren ikuspegia, gizateriaren garapen sozialean erdigunean txertatuz. Hizkuntza-aniztasunaren babesa hizkuntza-ekologiarentzat garrantzizkoa da, iraunkortasunarentzat bioaniztasunaren babesa garrantzizkoa den bezala. Ez da ahaztu behar bioaniztasuna eta kultura- eta hizkuntza-aniztasuna inguruneari egokitzeko gaitasun historikoaren emaitzak direla, eta gizakiaren garapen iraunkorra hizkuntzaren garapenarekin doalaz, hau da, hizkuntza-ekologiarekin batera.

4. Irudia. Iraunkortasunaren hiru gune kontzeptualak



Iturria: (Nazio Batuak, 1987)

Helburua da, beraz, hizkuntzen iraunkortasuna lortzea, bere zentzu zabalenean; eta bere erronka eta izateko arrazoi nagusia tokian tokiko hizkuntzak baliagarriak izan daitezen ziurtatzea, datozen belaunaldien hizkuntza-beharrak asetzeko. Eta gure ekosistemara hurbilduz, jakina, helburua da euskararen lurraldean, bertako datozen belaunaldietako biztanleek euskara osasuntsu izan dezaten ziurtatzea.

Izan ere, iraunkortasunaren kontzeptua sortzen da, hain zuzen, munduko krisiei erantzun beharretik, alegia **ingurumenari loturikoei** (bioaniztasunaren galera, klima-aldaketa, errekurtsio naturalen ustiapen neurrigabea, **ekonomiaren esparrukoei** (erregai fosilen energia-krisia, pobrezia, desoreka injustuak...) edota **Gizartearen esparrukoei** (kultura eta hizkuntza galeraren munduko krisia, identitateen arteko talkak, berdintasun-eza, ekitatearen falta, heziketa-araoak) kokatzen direnak. Hizkuntza-aniztasunaren kasuan, esan daiteke antzeko zerbait gertatzen dela, alegia, mundu mailako krisi baten aurrean gaudela, eta beraz, erantzun beharra eremu partikularretik abiatuta nazioarteko esparrura joaten dela.

EKOSISTEMA ETA AZPIEKOSISTEMAK. EUSKARAREN DENTSITATE HANDIKO GUNEAK, ARNASGUNEAK

Beraz, hizkuntza-ekologia, **zientzia bat da**, ezagutzarako tresna bat, eta, beste gizarte zientzia batzuk bezala, (psikologiak, soziologiak, eta ekonomiak, besteak beste) tresna kontzeptual zehatzak erabiltzen ditu, esate baterako *ekosistema* kontzeptua. Zein da euskal hizkuntza-komunitatearen ekosistema osasuntsu ziurtatuko duen baldintza-multzoa?

Erantzuna oso konplexua izan daiteke, baina ideia bat behintzat garbi agertzen zaigu: datozen belaunaldiek modu naturalean jaso, erabilgarri izan, eta ondorengoei transmititzeko nahia ziurtatuko duen sistema murriztu beharko da.

Komunitatearen beharrei eta borondateari erantzun beharko zaio halaberrez, baina erdigunean kokatu beharko litzateke honako ideia hau: natural jaso, natural erabili eta natural transmititzen den hizkuntzak ahalmen handiago du etorkizunean hala jarraitzeko. Hori da gertatzen dena euskararen dentsitate handiko guneetan, arnaguneetan. Hemen kokatzen da azpi-ekosistema kontzeptua. Gune horietan euskara modu naturalean jasotzen, erabiltzen eta transmititzen da, berariazko plangintzarik gabe. Eta naturaltasun horrek ematen die berebiziko garrantzia. Gaurdaino azpi-ekosistema erabat osasuntsuak izan dira, eta horregatik arreta berezia, zaintza berezia eskaintzea garrantzizkoa da. Ikuspegi horretatik, azpi-ekosistema sendoak direlako, arreta berezia merezi dute ekosistema osoan euskarri izan direlako. Horietan, egungo globalizazioak ekarri duen ukipen egoera sakonagoak sor dezakeen higadura kontrolatzeko arreta eta neurriak hartzea inportantea izango da.

Hitz egin dezagun baita ere beste azpi-ekosistemak: hizkuntza jasotzeko, erabiltzeko eta transmititzeko ahalegin berezia behar duten lekuak. Euskarak dentsitate txikia duen guneak, alegia. Gune horietako hiztunen ahalegina ere ezinbestekoa da ekosistemaren iraunkortasuna ziurtatzeko, arnaguneekin soilik ekosistema erabat ahula izango bailitzateke, ukipen egoeraren aurrean hauskor. Leku horietan, planteatzen den erronka are handiagoa eta konplikatuagoa da, datozen belaunaldietan naturaltasuna eskuratu nahi bada. Biak dira

ezinbestekoak ahuldutako hizkuntza baten ekosistema osatuko bada, hizkuntzaren berreskurapena lortuko bada.

BALIO ETIKOAK

Hizkuntza-ekologiak hainbat **balio etikotatik** iragazten du ezagutza, printzipio modura. Printzipio horien baitan kokatzen du gertakariak ulertzea, eta aipaturiko praktikara bideratzea. Hizkuntzaren ekologiaren ikuspegitik printzipio horiek balio unibertsala dute, hau da, pertsona guztiei eragiten diete, ekologian bezala; bai gutxitutako hizkuntzetako hiztunei eta baita hizkuntza hedatuetakoko hiztunei ere. Inportantea da hau azpimarratzea, ezinbestekoa delako horien inplikazioa ere lortzea. Oso bide laburra izan dezake bakarrik joateko tentazioak. Urte batzuk, belaunaldi bat, bi, baina arriskutsua izan daiteke. Gutxiengo guztien kasuan bezala, motorra tokian tokiko hiztunengan dago, baina helburua gainerakoak ere erronka honetan inplikatzeko da. Jakina, ez dugu ezkutatu, ekologian eta beste gizarte-gaietan bezala, horrek hainbatetan egoera gatazkatsuak sortu ditzakeela.

Goazen beraz, aipatzera zein diren ekologiak aintzat hartzen dituen balio etiko unibertsalak, labur-labur, hausnarketarako baliagarriak izan daitezkeelakoan.

- **Hizkuntza-aniztasunaren balio unibertsala.** Hizkuntza guztiek balio unibertsala dute; denak dira gizakiaren sorkuntza-gaitasunaren eta ingurumenari egokitzeko ahalmenaren adierazpideak. Beraz, ez da onartzen hizkuntzen arteko balio-hierarkiarik. Norberaren hizkuntzari besteenari baino balio handiagoa ematea beste gizartekoak baino boteretsuago sentitzearen ondorio da. Aldi berean, gizarte batek -edo gizarte horren zati batek- bere hizkuntzari balio gutxiago ematen badio berez, menpeko sentitzen denaren seinale izango da. Ez dago berez, hizkuntza-ekologiatik begiratua, hizkuntza hobeagorik edo txarragorik. Gure kasuan, beraz, munduko hizkuntza-aniztasunaren izenean dagokigu, beste lurralderik ez duen euskarari balio unibertsal hori aitortzea, zabaltea eta zaintzea.
- **Berdintasunaren printzipioa:** Printzipio horren arabera esan daiteke **“desberdin dagoena berdintzatzea ez dela berdintasuna, injustizia baizik. Aukera berdineko egoerara, ekitate-egoerara heltzeko neurriak hartu behar dira”**. Printzipio horrek ahalbidetu behar du euskararen -gutxitutako hizkuntza guztien kasuetan bezala- neurri babesleak, neurri garatzaileak, neurri bereziak hartzea, gutxienez **ekitate lortzeko**. Printzipio honek legitimotasun handia eskaintzen du hizkuntza boteretsuko hiztunak neurri horien beharraz jabetzeko. Puntu honetan, gustuko dut gogoratzea gizarte-esparruko hainbat eta hainbat gaietan ere, oso barneratuta dagoela printzipio hau, gutxienez gizartearen parterik aurrerakoenetan: genero-berdintasunaren inguruan, bestelako gutxiengo kasuan, bio-aniztasunaren defentsan, eta abar. Kasu guztietan konfliktorako aitzakiak sortzen dira, baina konfliktua bainoago, ikuspegi ekologikotik neurriak hartzea, ahalik eta adostasun-maila handienarekin balio orokor eta demokratiko modura hartzen da. Esan bezala, pentsamendu aurrerakoenaren baitan behintzat.
- **Subsidiaritatearen printzipioa.** Printzipio honen arabera, hurbilekoaren garapena eta erabilera lehenestea komeni da. Hizkuntzaren kasuan, bertako hizkuntzak, gure kasuan *euskarak egin dezakeena ez dezala beste batek egin* balioan jartzea da. Erronka da ekosistema osoa kontuan hartuta,

eta kasuan kasuko azpi-ekosistemetan euskarak bete ditzakeen funtzioak definitzea, adostea eta praktikara eramatea, hurbileko hizkuntzak bete ditzakeen funtzioak hizkuntza horretarako gordetzea, hizkuntza hedatzaileagoak horiek jan ez ditzan.

- **Belaunaldien arteko zaintzaren printzipioa, Zuhurtziaren printzipioa.** Printzipio horren arabera, ez da etikoa etorkizuneko belaunaldientzat kaltegarriak izan daitezkeen erabakiak eta neurriak onartzea. Hau da, neurri horiek onuragarriak izango direla ziurtasunik ez badago, hobe zuhurtziaz jokatzeko, beti ere, hizkuntza gutxituaren ekosisteman eragin kaltegarria izan ez dezan. Printzipio horiekin batera badira beste batzuk, aipatu besterik egingo ez ditudanak, baina ez ahaztea merezi dutenak. Horien artean aipatuko nituzke, elkartasunaren printzipioa eta erantzukizun sozialarena. Baina gaurkoz, horretan utziko dugu gaia.

EKINTZARAKO JAUZIA

Printzipio etiko horiek kontuan hartuz pasa gaitezen **hizkuntza-ekologiaren hirugarren zutabera, ekintzaren, praktikaren esparrura.**

Ze irakaspen ateratzen dugu ezagutza horretatik, balio etiko horiek aplikatuz euskararen biziberritze-prozesuan tresna sendoak izateko?

Idea nagusi batzuk:

1. Euskararen iraunkortasuna ziurtatzeko betebeharrak etikoa dugu munduaren aurrean eta bertako datozen belaunaldien aurrean.
2. Euskararen ekosistema duela 50 urte baino sendoago dagoen arren, oraindik ahula da, hauskorra.
3. Beste hizkuntza hedatzaileen aurrean babes-eta garapen-neurriak hartzea ezinbestekoa da, egoera injustuari aurre egin nahi baldin bazaio.
4. Neurri horiek azpi-ekosistemetan aplikatu behar dira, naturalki transmititzen diren esparrutan atzerazinezko higadurak gerta ez daitezkeen, eta irabazten ari garen azpi-ekosistemetan natural iraunkor dadin laguntzeko.
5. Babes eta garapen neurri horien artean garrantzizkoa izango da hainbat azpi-ekosistematan euskarari lehentasunezko funtzioak esleitzea, hizkuntza hedatzaileek funtzio natural horiek har ez ditzaten.
6. Zuhurtziaren printzipioaren baitan, ekosistema ahuldu dezakeen neurriak ekidin behar dira, batez ere, gainerako hizkuntzen kudeaketan euskararen funtzioak ahulduko ez dituela ziurtatzen ez bada.

Aipatutako horrek guztiak plangintza-politikoan eragina izan beharko luke, eta baita praktika pertsonalean ere. Ekologiak eragiten duen bezala. Politiko ekologistak behar ditugu, hizkuntza-ekologistak, eta baita gizarte ekologista bat ere, zergatik ez. Arduradun politikoei eskatzen diegu, batez ere, etorkizuneko ikuspegia duten arduradun politikoei, praktika politikokoan ekologiaren pentsamendu zabala barneratu dezaten. Eta bertan hizkuntza eta kulturaren iraunkortasunaren kontzeptua txertatzeko. Ikuspegi ekologikoan ditugun kontraesan guztiak azaleratzen zaizkigu hizkuntzaren gaian ere, baina ziur gaude etorkizuna bide horretatik etorri behar

duela, gizartearen garapen ekonomiko justutik (kasu askotan deshazkundera ere izango dena), gizartearen garapen ekitatetik eta ingurumenaren zaintzatik. Eta hor, kulturak eta hizkuntzak, bertako kulturak eta hizkuntzak bere lekua behar dute, ondorengo belaunaldiei gizarte iraunkorra transmititu nahi badiegu behintzat, ekologiak planteatzen duen bezala.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Bastardas, A. (2003). Ecodinámica sociolingüística: Comparaciones y analogías entre la diversidad lingüística y la diversidad biológica. *Revista de Llengua i Dret*, 39, 119-148.
- Haugen, E. (1972). *The Ecology of Language*. California: Stanford University Press.
- Krauss, M. (1992). The world's Languages in Crisis. *Language*, 68-19, 4-10.
- Maffi, L. (Ed.). (2001). *On Biocultural Diversity: linking language, knowledge and the environment*. Washington: Smithsonian Institution Press.
- Martí, F., Ortega, P., Idiazabal, I., Barreña, A., Juaristi, P., Junyent, C., ... Amorrortu, E. (2005). *Hizkuntzen mundua: Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo.: Unesco Etxea.
- Muhlhäusler, P. (2005). "Hizkuntz komunitateak" in Martí, F. et al. *Hizkuntzen mundua: Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. En *Hizkuntzen mundua: Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. (Martí, Felix, Paul Ortega, Itziar Idiazabal, Andoni Barreña, Patxi Juaristi, Carme Junyent, Belen Uranga eta Estibaliz Amorrortu). Bilbo: Unesco Etxea.
- Nazio Batuak. (1987). Brundtland Report. Our Common Future. Report of the World Commission on Environment And Development. Recuperado de <http://www.un-documents.net/our-common-future.pdf>
- SIL International. (s. f.). *Ethnologue. Languages of the world*. Recuperado de <https://www.ethnologue.com>
- Skutnabb-Kangas, T. (2000). *Linguistic Genocide in Education or Worldwide diversity and Human Rights*. Mahwah, New Jersey, London: Lawrence Erlbaum Associates, Pub.
- UNESCO. (2010). *UNESCO 2010: Atlas de las Lenguas del Mundo en Peligro*. Paris.: Ediciones UNESCO.